EBAZPENA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, 2015EKO AZAROAREN 18KOA, ERTZAINTZAREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERTZAINTZAKO LANGILEEI APLIKATU BEHAR ZAIZKIEN LAN-BALDINTZAK EZARTZEN DITUENA.

RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS, DE FECHA 18 DE NOVIEMBRE DE 2015, POR LA QUE SE ESTABLECEN LAS CONDICIONES DE TRABAJO APLICABLES AL PERSONAL DE LA ERTZAINTZA, QUE PARTICIPE EN PRUEBAS DE ACREDITACIÓN DE LOS PERFILES LINGÜÍSTICOS DE LA ERTZAINTZA.

Urtarrilaren 17ko 4/2012 Dekretuaren bidez onartu zen eta egun indarrean dagoen Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko Akordioaren (EHAA, 14. zk., urtarrilaren 20koa) 49. artikuluaren bigarren atalean ezarrita daude Ertzaintzaren hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba, Euskal Herriko Polizia Ikastegiak deitua (Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia deitua, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legea indarrean jarri zenetik), egiten duten Ertzaintzako langileei aplikatu beharreko lan-baldintzak; izan ere, ordura arte hizkuntza eskakizun hau egiaztatzeko bide bakarra deialdi horietan parte hartzea zen, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

En el apartado segundo del artículo 49 del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza, aprobado por Decreto 4/2012, de 17 de enero (B.O.P.V. nº 14, de 20 de enero), que se halla vigente, se establecen las condiciones de trabajo de aplicación al personal de la Ertzaintza, que realiza la prueba de acreditación de perfil lingüístico de la Ertzaintza, convocada al efecto por la Academia de Policía del País Vasco (denominada Academia Vasca de Policía y Emergencias, desde la entrada en vigor de la Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi); puesto que, hasta ese momento este perfil únicamente podía ser acreditado mediante la participación en estas convocatorias, de conformidad con lo establecido en el artículo 15 del Decreto 30/1998, de 24 de febrero, por el que se regula el proceso de normalización del euskera en la Ertzaintza.

Apirilaren 8ko 64/2008 Ebazpenaren bidez, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzen dira.

Mediante Decreto 64/2008, de 8 de abril, se procede a la convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimiento de euskera y a la adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

Maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuak Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen otsailaren 24ko 30/1998 Dekretua aldatzen du eta, zehatz esanda, hirugarren xedapen gehigarrian hauxe xedatzen du: "Ertzaintzaren praktiketako eta karreradun funtzionarioek IVAPek egiten dituen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko deialdietan

El Decreto 76/2012, de 22 de mayo, procede a la modificación del Decreto 30/1998, de 24 de febrero, por el que se regula el proceso de normalización del euskera en la Ertzaintza y, en concreto, en la Disposición Adicional Tercera del mismo prevé que, además, "Los funcionarios de carrera y los funcionarios en prácticas de la Ertzaintza podrán participar en aquellas convocatorias para la acreditación del

parte har dezakete, betiere, deialdian Ertzaintzako langileen parte-hartzea kontuan hartzen bada".

Aurreko guztiaren ondorioz, Euskal Herriko Poliziaren Legearen 103. artikuluan aurreikusitako Negoziazio Mahaian, 2015eko azaroaren 10ean, gai honen inguruan hitz egindakoa betearazi beharrean gaude.

Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuak 12. artikuluan ematen dizkidan eskumenak erabilita (EHAA, 74. zk., apirilaren 18koa), ondoko hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Ertzaintzako karrerako funtzionarioek eta aipatutako kidegoan sartzeko prozesuko prestakuntza fasea gainditu duten praktiketako funtzionarioek Ertzaintzaren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketak egiten dituztenean, IVAPek egiten dituen deialdietan, betiere aipatutako langileen parte-hartzea kontuan hartzen bada, aplikagarri izango dira 49. artikuluaren bigarren atalean ezarritako lan-baldintzak, honelako azterketetara joateko.

Gainera, egindako bidaia-gastuaren kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta bizilekuaren eta azterketa egiteko lekuaren arteko distantzia haren eta lantokiaren artean dagoena baino handiagoa bada, eta, halakoetan, gastu-diferentzia jasoko dute, Ertzaintzan egindako zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko urtarrilaren 17ko 5/2012 Dekretuaren 20.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuta (EHAA, 14. zk., urtarrilaren 20koa).

Lan-baldintza horiek aplikatu egingo dira IVAPeko zuzendariaren 2015eko irailaren 4ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 169. zk., irailaren 7koa) egin zen hizkuntza eskakizunak

cumplimiento de los perfiles lingüísticos que realice el IVAP en las que se contemple la participación del personal de la Ertzaintza".

Como consecuencia de cuanto ha quedado expuesto, con la finalidad de hacer efectivo lo tratado sobre esta cuestión en la Mesa de negociación prevista en el artículo 103 de la Ley de Policía del País Vasco, celebrada el día 10 de noviembre de 2015.

En el ejercicio de las competencias atribuidas en el artículo 12 del Decreto 194/2013, de 9 de abril, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad (BOPV nº 74, de 18 de abril),

RESUELVO

Primero.- En los supuestos en que el personal funcionario de carrera de la Ertzaintza y el personal funcionario en prácticas, que haya superado la fase de formación del proceso de ingreso al mencionado Cuerpo, realice los exámenes para la acreditación del cumplimiento de los perfiles lingüísticos de la Ertzaintza, en aquellas convocatorias que realice el IVAP, en las que se contemple la participación del personal mencionado, serán de aplicación las condiciones de trabajo establecidas en el artículo 49, apartado segundo, para la asistencia a este tipo de pruebas.

Además, tendrá derecho a la indemnización del gasto de viaje realizado, en caso de que la distancia entre el domicilio y el lugar de realización del examen fuera superior a la existente entre aquél y el centro de trabajo y, en este supuesto, por la diferencia de gasto, en aplicación a lo establecido en el artículo 20.4 del Decreto 5/2012, de 17 de enero, sobre indemnizaciones por razón del servicio del personal al servicio de la Ertzaintza (B.O.P.V. nº 14, de 20 de enero).

Estas condiciones de trabajo serán de aplicación a partir de la convocatoria de exámenes de acreditación de perfiles lingüísticos realizada por la Directora del IVAP,

egiaztatzeko azterketen deialditik aurrera.

Bigarrena.- Ertzaintzako karrerako funtzionarioek eta aipatutako kidegoan sartzeko prozesuko prestakuntza fasea gainditu duten praktiketako funtzionarioek Ertzaintzaren hizkuntza eskakizunen baliokideak diren mailak egiaztatzeko azterketak egiten dituztenean, bestelako deialdi ofizialetan, horiek egiteko beharrezko denbora baimenduta izango dute, baldin eta lan egiteko denbora planifikatuaren edo programatuaren barruan izaten badira, eta aipatutako horretaz aparte ez da aplikatuko bestelako kalte-ordainik.

Hirugarrena.- Ebazpen hau sailaren intranetean (Gurenet) eta polizia-instalazioetako iragarki-oholetan argitaratzea, Ertzaintzako langileek jakin dezaten.

Laugarrena.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari. Horretarako, hilabete izango dute, berau argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, azaroaren 26ko 4/1999 Legean idatzita ageri den eran.

mediante Resolución de 4 de septiembre de 2015 (BOPV nº 169, de 7 de septiembre).

Segundo.- El personal funcionario de carrera de la Ertzaintza y el personal funcionario en prácticas, que haya superado la fase de formación del proceso de ingreso al mencionado Cuerpo, que realice exámenes para la acreditación de niveles equivalentes a los perfiles lingüísticos existentes en la Ertzaintza en otro tipo de convocatorias oficiales, dispondrá del tiempo de permiso necesario con esta finalidad, en caso de que coincida con tiempo planificado o programado de trabajo, no siendo de aplicación ninguna otra compensación adicional a la expresada.

Tercero.- Publíquese la presente Resolución en la intranet corporativa Gurenet y en los tablones de anuncios de las instalaciones policiales, para conocimiento del personal de la Ertzaintza.

Cuarto.- La presente Resolución no pone fin a la vía administrativa y contra la misma podrán los interesados interponer recurso de alzada en el plazo de un mes desde su publicación ante el Viceconsejero de Administración y Servicios, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en su nueva redacción dada por la Ley 4/1999, de 26 de noviembre.

Erandion, 2015eko azaroaren 18an.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Giza Baliabideen Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Recursos Humanos

Izpta.: Miren Karmele Arias Martínez
Giza Baliabideen zuzendaria